

HAZIAK mintzo

Asiako liztorra

Otsailaren 20an, Zuraideko De Bilbao erlezainaren bisita ukan dugu Asiako liztorra harrapatzearen inportantiaz hitz egiteko. Erran behar da intsektu hori arriskutsua dela erleentzat. Negu bukaera huntan, hibernatzetik justu ateratzen diren erreginen harrapatzeko

momentua da. Hortarako, plastikozko botila bat hartu behar da. Bi zilo eginez bazterretan, 20zl garagardo edo arno xuri baita ere fruitu gorrien ziropa isurtzen da barnean. Erleek alkohola ez dute maite, orduan ez dira harrapatuak. Ondotik, botila lurretik 1,5 metrotara ezarri behar da arbola bati edo hesi bati lotuz. 10 egunetarik hustu behar da eta barnean den nahasketa berritu. Lan hori etxetan segituz, uda huntako fruituak lasaiki biltzen ahalko ditugu.

Zuraideko Bihotz Sakratuko ikasleak



HAZIAK mintzo

Ihauterien prestakuntza

Ortzaizeko San Mixel eskolan ez gira anitz: 18 ikasle. Hautatu dugu maila bakoitzak pertsonaia batez mozorrotzea, CM-koak joaldunak izanen gira, CE-koak zirtzilak izanen dira eta ama eskolakoak animaleak.

Hasteko egin ditugu joaldunen txapelak, luzeak dira, lumak badituzte punttan eta kolorezko txingolak kolatu ditugu txapelaren inguruan. Zirtzilek tindu anitz eman dituzte masken

gainean eta tee-shirten gainean oihalezko txingolak kolatu dituzte. Bukatzeko, tikienek haien maskak tindatu dituzte erakaslearekin animaleak egiteko.

Ihauterientzat ostiral guziz dantzak ikasten ditugu: hartzaren dantza, makil tiki, txulalai eta San petrike. Bukatzeko, «ihauteriak» kantua ikasi dugu eta Zarpantzarren auzia denak elgarrekin prestatu dugu. Presatuak gira ihauteriak ospatzea gure familiarekin, gure mozorro ederrak erakustea, kantatzea, dantzatzea eta Zarpantzar erretzea.

Ortzaizeko San Mixel eskola



Bilaka kolektiboa

Largenteko ikastetxeko elebidunak gara, 4.A gela eta aurreko Bilaka kolektiboa dantza konpainiarekin dantza sorkuntza bat ari gara prestatzen urte bukaerarentzat.

Joan den abenduan Arthur Barat dantzaria etorri da Largenteko dantza tailer batzuen ematera. Tailer horretan makil dantza ikasi dugu dantzatzeko eta hainbat ariketa egiten ditugu gure gorputzarekin. Bestalde, bere ibilbide profesionala aipatu digu eta Bilaka kolektiboaren lanak

aurkeztu dizkigu. Ondotik, urtarrian "Bezperan" izeneko emanaldia ikustera joan gara Baionako antzokira, bikaina zen! Emanaldia ikusi ondotik, euskal mitologiaren inguruan lan egin dugu klasean gure emanaldiak gai hori aipatuko duelako.

Heldu diren asteetan Arthur Barat Largenteko itzuliko da tailer batzuen ematera eta gure dantza ikusgarria sortuko dugu. Ikusgarria Donostiako San Telmo museoan emanen dugu maiatzean publikoaren aitzinean.

Largenteko 4.A gela



Emozioei buruzko tailerrak

Aurten, Milafrangako Bihotz Sakratua eskolan, garrantzitsua iruditu zaigu gogoeta egitea elkarrekin bizitzeko ditugun zailtasunez, desberdintasunez, frustrazioaz: azken finean, gure emozioak nola kudeatu!

Helburu horrekin, erakasleek eta laguntzaileek tailerrak prestatu dituzte, urtean zehar arratsalde bereziak antolatuz. 8 tailer egin ditugu, maila anitzeko taldeetan, denon eguneroko bizia hobetzeko.

1. Emozioei buruzko liburu baten irakurketa.
2. Adiskidetasunaren aulkiaren apainketa.
3. Emozioen kantu bat sortzea.

4. Irudiak komentatzea.
5. Meditazioa.
6. Emozioak adieraztea dantzaren edo gorputzaren bidez.
7. Mahai-jokoa: sentimenduak edo hausnarketak adierazteko.
8. Emozioei buruzko bideoak egitea.

Orain arte, bi arratsalde antolatu ditugu, eta ikasle guztiak gozatu dira, usaiak kanpoko aktibitateetan. Ondorioz, ikasleek poza, tristura, haserrea, beldurra,... hobeki eza-gutzen edo kudeatzen dituzte.

Gure programa kargatueta, "pauza" tiki horiek, bakoitzaren sentsibilitateak onartzea, eta besteari lekua uztea, argitara emateko parada izan da.

Milafrangako Bihotz Sakratu eskola

